



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

Hitzarmena sinatu dugu Arabako Zurgintzan; hobekuntza nabarmenak ekarriko dizkie sektoreko langileei eta prekaritatetik ateratzeko lagunduko du

Gaur, irailak 27, Arabako Zurgintzako Mahai Negoziatzailea bildu da eta hitzarmena sinatu dugu. 2 urte eta erdiz luzatu den negoziazioaren ostean, sektoreko langileek badute eragin osoko hitzarmen berria. Gogorarazi nahi dugu sektore honetan 500 langilek lan egiten dutela eta asko sufritu dituztela 2008ko krisia baita pandemiaren egoera ere.

Horregatik, azpimarratu nahi ditugu hitzarmenak dakartzan puntu nagusiak, gure ustez sektorearen arazo askori erantzuten baitizkio, langileak prekaritatetik ateratzeko lagunduz:

- Urtero %1,5eko igoera, eta hitzarmenaren amaieran KPI-arekiko berrikuspena
- San Jose pagaren kontsolidazioa
- Inaplikazio klausula
- Ultraktibitate mugagabea
- Izatezko bikoteen eta ezkontiden berdintzea
- Katetoria baxuenen (formakuntzakoak) berrikusteko konpromisoa
- Sektoreko Berdintasun Batzordea
- Egutegian egun bat mugitzeko aukera, hurrengoan lanaldia jaisteko aukera irekiz
- Laneko bajetan osagarria hobetzea 10 hilabetetik 15era

Horrela, igoerari eta San Jose pagaren kontsolidazioari esker, hitzarmenaren amaieran langileen soldatak gutxienez %6,7 igoko dira.

LAB langileen aktibazioa etengabe bultzatzen saiatu da, bere kabuz ekimenak abiatuz eta ahal izan den neurrian batasun sindikala sustatuz sektorea astintzeko. Horrela, azken hilabeteetako dinamika proposamenak LAB-ek bultzatu ditu, eta argi dugu horri esker lortu dela patronala bere hasierako posizioetatik mugitzea. Joan den uztailen, 4 sindikatuok mobilizazio bateratu bat deitu genuen eta SEAko arduradunei 300 langileren sinadura helarazi genizkien, hitzarmen duin bat eskatuz.

Argi adierazi nahi dugu bide amankomuna zaila izan dela: batzuetan gogo eskasa nabaria izan da eta besteetan posizio maximalistetan kokatuta konfrontatzeko asmo falta ezkutatzea ere ikusi izan dugu.

Hala ere, LABek bereari eutsi dio eta langileen aktibazioa eta elkarlan sindikala bultzatzen tematu gara lortu arte, azken hau nahi baino txikiagoa izanda ere.



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

Honenbestez, LABek hurrengo urteetan lan egiten jarraituko du, sektorean borroka eta dinamika pizten, beti ere sektorean lan baldintza duinen defentsan, eta hurrengo hitzarmenean are hobekuntza gehiago borrokatzeari begira.

Gasteizen, 2021eko irailaren 27an